


**BIZITEGI ERAIKINA  
D MAILA**

**ETXAGUE JENERALA 4**



**Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1887**

**Deskribapena.**

Mehilin arteko eraikina, behe oina, lau goi oin eta bi jasodura dituena (lehen jasodura mantsardatua eta bigarrena atzeraemana). Harlanduzko fatxada behe oinean, eta entokatua goi oinetan, baoak harlanduzko azpadurekin. Proiektu komuna da Jeneral Etxague 2tik Erregina Erregente 6ra bitarteko etxeek osatzen duten osotasunarekin –C babes mailan barnean hartzen dira–.

**Babes erregimena.**

- 1.- Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemana (6. goi oina).
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.